

SENTIMENDU BORTITZAK.

Landarbaso Abesbatza

Zalantzas, urduri nago; orri txuri hauek neure aurrean ikustean; Oarso aldizkariaren bidez esateko gai naizen guztia adierazteko prest, Landarbaso Abesbatza Elkarateak iaz burututako iharduerak.

Oso ardura handia da zer paperatu jakitea, baina poza handia ere bai gure eguneroko lanaz idatzi ahal izatea, hain gurea eta maitea dugun Oarso bezalako aldizkari batean.

Itzulginguru gehiagorik gabe gure iharduera guztiak kontutuko dizkizuet, nondik hasi?

Gure oroimenera datorren lehenengo gauzarekin hasiko naiz, Aviles.eko Abesbatzen Sariketan gure partehartzearekin. Sariketa bitan zatiturik zegoen. Bata sailkatzailea eta beste finala. Lehenengoan hamasei abesbatza baino gehiagok hartu genuen parte Azaroan zehar, eta hauetatik hiruk finalera pasatzea lortu zuten. Landarbaso Abesbatza hauen artean zegoen, Oroith Abesbatza gipuzkoarra eta Aragoiko Kanto Koraleko Institututoko Abesbatzarekin batera.

Landarbaso Abesbatza lehiaketa batera doan hirugarren aldia da. Lehenengo Ejea de los Caballeros.ekoa izan zen 1993. urtean, eta bertan bigarren postua lortu zuen. Urte berean, Portugalete-ko Itsas Abestien Sariketan parte hartu zuen eta honetan ere bigarren saria lortu zuen. Horrela, aipatutako Aviles.eko lehiaketan, Landarbaso Abesbatzak lehenengo saria lortzen zuen lehenendabiziko aldia izan da.

Lehiaketa honetan Landarbaso Abesbatza, Espainia guztiko urte askotako esperientziadun abesbatzekin lehiatu da. Hala nola, Oroith Abesbatzak bere grina erakutsi du, nazioarteko lehiaketetan sariak lortuz, Hungariakoa esaterako, Tolosan era parte hartu du... Beste abesbatza batzuek Europan zehar anitz jira egin dituzte: Alemania, Frantzia, Belgika... Honekin zera adierazi nahi da, Aviles.eko Sariketak maila polita daukala, eta epaimahaiak Landarbaso Abesbatza saritu duela beste guztien gainetik.

Sariketa honetan, ordea, asko ikasi da. Antolatzaileek adierazi dutenez, aspaldidanik ez zutela eduki hain maila handiko finala, eta horrelako sariketa bat ikasteko aprobeixatu behar da. Asko ikasi dugu jokoera, portaera eta lasaitasunari buruz, eta batez ere, Landarbaso Abesbatza egin dituen akatsez konturatu da, sariketa irabazi arren. Asko ikasi ahal izan da, asko abesbatza sailkatuengandik.



Guztiok dakizuen moduan, Landarbaso Txiki Landarbaso Abesbatza Elkarteko senide gazteena dugu. Aurtengo berrikuntza moduan aipatzekoa da, abesbatza honetan ikastola eta eskoletan sortutako musika koraleko tailerretatik etorrikatako umek abesten dutela. Tailer hauetan umek musika munduan sartzen hasten dira modu pedagogiko eta jostagarri batean.

Beste urte batez, Ahalegina Abesbatzak Gabon Abestien Lehiaketan parte hartu du. Bere izenak adierazten duen bezala Ahalegina esfortzu bat da, musikaz gozatzeko ahalegin bat. Musika herrikoia egiteko bide bat dugu hau.

Zunbeltz Abesbatzak bere lehenengo urte neketsua bete du. Abesbatza honetan 14-20 urte bitarteko neska-mutilek Landarbaso Txiki Abesbatzan hasitako lanari jarraipena emateko aukera dute, eta Landarbaso Txikitik pasa gabeko gazteek eta Landarbasorekin harremana eduki nahi duten gazteek ere bai.

Esan daiteke Zunbeltzek bere hedaketa lortu duela lehen urte honetan, eta hasiak dira emandako fruituak jasotzen. Abesbatza bat osatzeaz gain, lagun talde bat dira eta oinarri haundi bat daukate lan egiteko.

Aipatzekoa da, 1995ean zehar, talde honek zenbait kontzertutan parte hartu duela Landarbaso Abesbatzarekin batera: Pasai Antxon, Loiolan, Urretxuko San Martin de Tours.eko elizan, Igantzin, Hernanin, eta, nola ez, gure herrian emandako emanaldietan: Zamalbideko elizan, Kaputxinoen elizan, Zaharren Egoitzan, Madalenako ermitan...

Hau izan da partaide naizen abesbatzari buruz sentitzen eta esan nahi izan dudana guztia. Harro sentituko nintzateke, artikulu honek gure joan-etorriak adierazteko balioko balu, eta oso pozik norbaitek gure lanarekin bat egingo balu. Esfortzua eskatzen duen lana da, baina zin dagizuet oso momentu onak ere badituela, Aviles.en bizi izan genuena esaterako, gure musikaren eta gure baitan zegoen guztia ematez gain, ziur geunden Errenteriako herria berriz ere saritua ari zela izaten musikaren bidez.

